

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2013ko otsailaren 28a. IX. urtea. 2.553. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hirurehun kiloko harria jaso dutenen nagusitasuna eskualdean dago

Iñaki Otaegi 'Gibitegi' goiaztarra eta Iñaki Perurena, Mieltxo Saralegi eta Inaxio Perurena leitzarrak dira 300 kiloko harria jasotzea lortu duten bakarrak

Kiroletik haratago sentimendu baten moduan bizi dute harri-jasotzea lau kirolariek; Leitzan elkartuta, harri-jasotzaileek beren bizipenak azaldu dituzte **04-5**



Zutik Mieltxo Saralegi eta Iñaki Perurena eta behean, Inaxio Perurena eta Iñaki Otaegi. I.TERRADILLOS

Lluis Verdaguer Taradelleko alkatea

«Penagarria da hondakinen gaia desgaste politikorako erabiltzea»

Lluis Verdaguer La Plana mankomunitateko presidenteak hitzaldia emango du Tolosan **07**

Emakumeen Mundu Martxa ezagutzera eman nahi dute

ELA, LAB, EHNE, Bilgune Feminista eta ikasle mugimenduak osatzen dute plataforma **03**

Berazubi estadioko obrak hastear daude

Tolosako kirol azpiegiturak berritzeko lanen lehen faseak sei hilabete eta erdi iraungo du; astelehenean hasiko dira **02**

• Saria:
Elketa jatetxean
bi lagunentzako
otordua

Elketa Jatetxea

San Miguel ballara, 2
Hernialde 943 65 21 16
www.elketa.com

• Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera **martxoaren 3a** bitarte
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



Inauterietako
Argazki lehiaketa

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Inauteriak '13

Parte hartuko duen argazki guztiak ikusgai izango dira
Inauterietan tolosaldea.hitza.info webgunean!

Tolosako Berazubi estadioko obrak astelehenean hasiko dituzte

Lehen fasea sei hilabete eta erdiko epean amaitzea aurreikusi dute; 920.035 euroko kostua izango du

Itzea Urkizu

2011ko martxoan sinatu zuen, Tolosako Udalak, Tolosa CF eta Muñoa Fundazioarekin, Berazubi estadioko eraberritze lanei ekiteko beharrezko hitzarmena, eta datorren astelehenean hasiko dira obrak.

Iñaki Arratibel Tolosa CFko lehendakariak, «duela 8 urte ere taldearen helburu nagusien artean Berazubi eraberritzearena» zegoela nabarmendu du: «Tolosan dauden kirol azpiegiturak ikusita, ez du zentzurik Berazubi herritar guztien erabilerrarako ez izateak. Azkenean lortu dugun».

Ibai Iriarte alkateak eta Iñaki Arratibelek, bereziki eskertu nahi izan dute «Muñoa Fundazioak izandako prestutasuna»; gogorra ekarri behar da, fundazioaren jabetzetako bat dela estadioa, eta 50 urterako utzi dio udalari.

Estadioa berritzea proiektua osorik aurkeztu zen hasieran, Imanol Agirre udaleko arkitektoak azaldu duenez; egoera ekonomikoagatik, ordea, lau zatitan bu-

rutuko dituzte obrak, eta lehentasuna eman nahi izan diete behar gehien zuten puntuei.

Horrela, astelehenean bertan abiaraziko duten lehen fasean, Iurre auzoko sarrera, harmailak, aldagelak eta gimnasioa eraberritzeaz gain, estalitako bi padel pista ere egingo dituzte, igerilekuaren ondoan. Hau guztia egiteko, 920.035 euroko aurrekontua izango dute, eta BEZA erantsi beharko zaio horri.

Aldaketa nabarmenenak harmailetan izango dira: «Harmailak egiteko aurreko egitura aprobetxatuko dugu guztia berrituz. Azpian, ordea, aldagelak izango dira lanak amaitzean, eta tribunaren eta aldagelen artean taberna txiki bat egingo dute», azaldu Agirre arkitektoak. Harmailen aldamenean, berriz, gimnasioa eta estalitako bi padel pista eraikiko dituzte.

Obrei dagokionez, hasiera batean zortzi hilabeteko lanak aurreikusi bazituzten ere, lehiaketa prozesuan lanak sei hilabete eta erdian amaitzeko proposamena egin zuen, UTE Compezo Arian enpresa esleipendunak: «Eraikuntza enpresa honek Gipuzkoako lan hitzarmeneko baldintzak betetzen ditu, eta kontuan hartu dugun hau, esleipena egiterakoan», azpimarratu du Iriartek.

Egitasmo osoa burutu ahal izateko aurrekontua, 2.869.000 eurokoa izango da, eta «hurrengo hiru faseak, beraz, finantziario iturrien menpe egongo dira neurri batean», alkateak azaldu duenez.



Iñaki Arratibelek eta Ibai Iriartek eskerrak eman dizkiote Muñoa Fundazioari. ITZEA URKIZU

Lanen bigarren zatian atletismo pistako luze bat estaltzea, tenis pista eraberritzea, eta frontoi eraberritu eta pixka bat lurperatzea aurreikusi dute, «bizilagunei gutxiago eragiteko».

Hirugarren zatian, taberna, bulegoak eta biltegiak osatuko lituzte, eta azkenik, igerilekua berritzearekin batera, ibai ondoko pasealekuaren urbanizazioa ere amaituko lukete.

Izan ere, kirol instalazioak hobetzeaz gain, eraberritze lanen helburu nagusietako bat «estadioaren eta aldameneko bi auzoaren arteko harmonia sortzea» dela nabarmendu dute arduradunek. Hau dela eta, estadioa inguratzen

duen horma desagertu egingo da proiektua amaitutakoan, eta espazio irekiago baten itxura hartuko du Berazubik.

Kirol eskaintza osoa

Egitasmoaren aurkezpenean, Berazubiko azpiegitura berriak Usabal kiroldegikoekin uztartzea ezinbestekotzat jo du Ibai Iriarte alkateak. Kiroldegia osagarri izango da, beraz, estadioa, eta Usabalgo bazkide guztiak erabili ahal izango dute, Tolosako kirol eskaintza osatuz. «Leku gutxitan izango dute horrelako kirol azpiegiturez gozatzeko aukera», nabarmendu du Arratibelek.

Horrela, bada, datorren astelehenetik aurrera, Berazubi estadioaren kudeaketa Tolosako Udalen eskumena izango da, eta beraz, Kirolzer-ek kudeatuko ditu azpiegiturak, Usabal kiroldegia-

ren ardura ere enpresa berak baitarama.

Hala ere, futbol zelaiaren mantentze lanak Tolosa CFk burutuko ditu oraindik: «Lehen fasean ez da zelaia ukituko, eta guk urteak daramatzagu zelaia zaintzen, beraz, lan hori guk egitea erabaki dugun», azaldu du Tolosa CFeko lehendakariak.

↓ Aurrekontua

2'8 milioi

■ **2.869.000 euro.** Berazubi estadioa eraberritzeko aurreikusitako obra guztiak aurrera eramateko 2'8 milioi inguruko aurrekontua beharko dute. Lehen zatia egin ahal izateko, berriz, 920.035 euro beharko dituzte.

Parot doktrinaren aurkako mozioa onartu dute

Tolosako Udalak 'Euskal pizkundea' plaza izendatuko du, mugimendu hartako kideen omenez

I. Urkizu

Tolosako Udaleko azken osoko bilkuran, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 legearen, edo bestela esanda, Parot

Doktrinaren aurkako mozioa onartu dute.

Bildu, Aralar eta EAJko udal hautetsiek Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak pasa den uztailaren ebazitako ekarri dute gogora; tribunal honek, Parot Doktrina ez legezkoa eta oinarriko eskubideen aurkakoa dela ebazti zuen, berau bertan behera uzteko eskatuz.

Bide honetan, eta pasa den astearteko plenoan onartutako mozioaren bidez, Tolosako Udalak nazioarteko giza eskubideen legegria aplikatuz, 197/2006 doktrinapean dauden euskal preso guztiak aske uztea eskatu du. Halaber, «euskal presoen aurkako salbuespeneko legegria bertan behera utzi behar da, Euskal Herriari bizi dugun itzaropen eta konponbide aukeraren aurrean»,

osoko bilkuran nabarmendu zuten.

Honen guztiaren berri emango die udalak, gainera, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideen ordezkari den Nils Muiznieks-i.

Aipatzekoa da, gai honen harira, osoko bilkuran aipamen berezia egin zitela Pello Odriozola tolosarrari; 2008an aske izan behar zuten, baina Parot Doktrina aplikatu zioten, eta hamar urtez luzatu diote zigorra.

Euskal Pizkundeari plaza

Datorren martxoaren 23an, Tolosako Udalak Euskal Pizkundea plaza izendatuko du, osoko bilkuran puntu hau onartu eta gero.

Oria ibaia, Aranburu jauregia, Santa Maria eliza eta Errotak mugatzen duten eremuak jasoko du

izen berria, eta XX. mendeko lehen hamarkadetan mugimendu hau abiarazi eta garatu zuten gizon-emakume guztiak gogora ekartzeko modu bat izango da.

Honez gain, astearteko osoko bilkura aldarrikapen gehiagoz osatu zuten. Batetik, Saharar Errepublikari Arabiar Demokratioa aldarrikatu zeneko 37. urteurrena dela eta, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta onartu zuten.

Halaber, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, adierazpen instituzionala onartu zuen udalbatzak, eta Tolosako Udalak esparru honetan dituen lehentasunak zerrendatu zituen. Besteak beste, berdintasun politika publikoak garatzeko konpromisoa hartu du udalak.



Indarkeria sexistak eragindako erailketen aurrean, gizartearen erantzuna aktibatzeke lanean dihardute aspaldion, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxako kideek.

Ezin da bestaldera begiratu

Itzea Urkizu Tolosa

Igaro dira jada urte batzuk, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxa plataforma sortu zenez geroztik. Emakumeen eskubideen defentsan, lau urtez behin mundu mailan abian jartzen den egitasmoa da Emakumeen Mundu Martxa, eta Euskal Herrian, tokian tokiko plataformetan gauzatzen dira helburu eta aldarrikapen horiek. Tolosaldean, ELA, LAB, EHNE eta Bilgune Feminista izan dira, hasiera-hasieratik, plataformako kideak; berriki, ordea, Ikasle mugimendua batu berri zaie.

Pasa den irailean inguruan, taldeko kideak beren jardunaren inguruan hausnartu zuten, eta plataforma ahul zegoela ikusi zuten, Eider Olazar Elduaie eta Maider Aramendik azaldu dutenez: «Kontu honi buelta batzuk eman genizkion, eta plataformak egindako deialdiek oso erantzun ahulak izaten dituztela ikusi genuen».

Izan ere, plataformaren eginkizun nagusia, Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenean, gertaera horri kalean erantzun bat ematea da, funtsean.

Deialdiak deialdi eta aldarrikapenak aldarrikapen, ordea, plataforman elkartutako eragileek, mobilizazioek indarrak ez dutela nabaritu dute: «Zerbait egiteko behar handia ikusi dugu, gaiak zer nolako garrantzia duen kontuan izanda. Azken finean, emakume bat erailtzen dute, oinarri-oinarrian, emakume izateagatik. Lortu behar duguna, beraz, hain larria den arazo bati, erantzun indartsu bat ematea da».

Ikasturte hasieran burututako hausnarketa horri jarraipena emanez, lehenik eta behin, ELA, LAB, EHNE, Bilgune Feminista eta Ikasle mugimenduko kideek konpromiso jakin batzuk hartu dituzte beren helburuei begira. Horietan lehena, plataformaren berri ematea da: «Jende askok ez daki talde hau badenik ere, eta geure burua ezagutzera eman nahi dugu, bere garaian sortu genuen protokoloa gizarteratzeko».

Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxak, eraso sexisten aurrean, protokolo bat osatu zuen: Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenean, hedabideek berria eman eta 24 ordu geroan, goingo dituzte mobilizazioak, beti ordu eta leku berean.



ELA, LAB, EHNE, Bilgune Feminista eta Ikasle mugimendua osatzen dute, gaur egun, plataforma. HITZA

Modu honetara, jarraibide hau herritarren artean zabaltzea beharrezkotzat jo dute eragileek, gizartean bilatzen ari diren erantzun hori lortzeko. Bide honetan, eta konpromisoekin jarraituz, plataformako eragile bakoitzak ordezkari kopuru bat eraman behar du mobilizazio hauetara, eta enpresa nahiz ikastetxeetan lanketa bereziak egiten ari dira, horrelako egoeratarako.

Epe luzera, kontzientzia

«Funtsa, erantzun baten beharra sortzea da, baina sortzea, gizarteak gaitz bat duenaren kontzientzia izanda», nabarmendu du Maider Aramendik.

Izan ere, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxak gogora ekarri nahi du, indarkeria sexista birsortzen ari dela, eta belaunaldi gazteetan ere bizirik dagoela: «Konponbidetik oso urrun gaude, harreman ereduak nahiz gizon-emakumeei gizarteak ezartzen

dizkien rol bereizketak, belaunaldiz belaunaldi pasatzen direlako», dio Eider Olazar Elduaiekin.

Horri guztiari aurre egiteko, ordea, «sekulako lana» egin behar dela diote, eta herritar guztiak arazo larri honekiko kontzientzia izatearena epe luzerako lorpen gisa ikusten dute.

Hain zuzen ere horregatik eman nahi diote indar berezia, gizartearen erantzunari: «Behin erantzun bat aktibatu dela ikusten dugunean, kontzientziaioa paraleloki joango den zerbait



Azken finean, emakume bat erailtzen dute, oinarri-oinarrian, emakume izateagatik»

EIDER OLAZAR ELDUAIEN
Emakumeen Mundu Martxako kidea

izango da; baina lehenengo arazo hori badela ikusarazi behar da. Izan ere, gertuko arazo bat da, eta edonori gerta dakiok, baina herritarrok ez dugu ezer egiten, norberari eragiten ez dion bitartean».

Auzi honetan, plataformak mahai gainean jarri nahi izan ditu, azken urteotan indarkeria matxistaren ondorioz Tolosan bertan erail dituzten emakumeak ere: «Emakumeen aurkako indarkeriak astindu handia eman du azkenaldia Tolosan, indarkeria fisikoari dagokionez; 2009an Izaskun Jimenez erail zuten, 2010ean Elena Cal, eta iaz, berriz, Caridad

↓ Protokoloa

1 Erailketaren berria hedabideetan. Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenean prentsan berria noiz argitaratzen duten ikusi behar da.

2 24 orduko tartea. Egunkari, irrati nahiz telebistetan berria argitaratu eta 24 orduan erantzun bat aktibatu dela ikusango dira mobilizazioak.

3 Triangulazioa. Tolosaldeko mobilizazioen kasuan, elkarretaratzeko beti 19:00etan Triangulazioa plazan izango dira.

Rodriguez. Hain gertuko kasuak ikusteak, beraz, balio beharko luke kontzientziak astintzeko, horrela esatea tristea den arren».

Muturreko kasuak hizpide izanda ere, genero indarkeria «gauza txikienekin hasten da», eta plataformak bereziki aipatu nahi izan du festa giroa: «Parranda giroan, adibidez, eguneroko bizitzan zilegiztat joko ez liratekeen zenbait jarrera sexista bidezkoztat hartzen dira: lerdetsu bat gau osoan ondoan izatea, edo ipurdia ukitzea esaterako».

Honegatik guztiagatik, auzi honetan pauso txikiak emanez, «poliki-poliki» joan behar dela badakite plataformako kideek, eta «ezer berririk» aldarrikatuko ez dutela dioten arren, hamaika eta bat aldiz mezu bera errepikatzeke prest daude, «gizarteak duen gaitz hau sendatze bidean».

• tolosa@hitza.info

Irudia ▾ Altzo



ZUHAITZ EGUNA OSPATU DUTE ALTZON

Pasa den ostiralean, otsailaren 22an, Zuhaitz eguna ospatu zuten Altzon. Bazkalondan, Imaz Bertsolaria eskolako ikasleak, irakasleak, guraso-

ak eta udal ordezkariak elkartu, eta Geizan 30 haritz inguru landatu zituzten. Ondoren, askaria egin zuten guztiak, udaletxean. HITZA

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldun batek bere burua eskaintzen du. Au-

toa ere badauka, gainera, lanera joan ahal izateko. Emakumea kontratatzeke interesa duen edonork, dei egin dezala telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

Ekitaldi ugari izango da eskualdean, Korrikari ongi etorria emateko

Kultura izango da nagusi, Villabonan, Anoetan, Alegian eta Adunan antolatutako egitarauetan

Julen Telleria

Bi aste besterik ez da geratzen, aurtengo Korrikak bere lehen urratsak eman dituzten, eta horren harira, ekitaldi aukera zabala eskaintzen dute eskualdeko hainbat herri.

Bihar bertan emango zaio hasiera Amasa-Villabonan, korrika hasi aurretik ospatuko den aste kulturalari. Hitzen balioa neurtzeko asmotan, ekimen berezi bat antolatu dute *Balitzén Hioa* izenpean. Hitzei buruz idazten jarri dituzte lau bertolari, eta haiek osatutako testuetatik sortu dute ikuskizun berri hau. Bihar, 22:30etik aurrera ikusgai izango da Villabonako Gurea aretoan, bost euroren truke.

Ez da, hala ere, Korrikaren aldeko ospakizun bakarra izango. Villabonan bezala, Anoetan, Alegian eta Adunan ere ari dira kulturastearen egutegia osatzen.

Korrikari bultzada

Egun hauetan zehar antolatuko diren ekimen guztiek, Korrikari laguntzea izango dute helburu. Horregatik, hauetan parte hartzeko ordaindu beharreko diruaren zati bat, Korrikari bultzada ekonomikoa emateko bideratuko dute.

• tolosaldean@hitza.info



Larunbatean jokatu zen Korrikaren aldeko ginkana, Ikaztegielan. E.MAIZ

↓ Egitarauak

AMASA-VILLABONA

■ **Martxoak 1, ostirala.** *Balitzén Hioa* ikuskizuna, Gurea aretoan, 22:30ean. Sarrera bost euro.

■ **Martxoak 6, asteazkena.** *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako*, Xabier Amurizaren hitzaldia. Subijana jatetxean, 19:00etan. Sarrera doan.

■ **Martxoak 9, larunbata.** Azkoitiko Sahatsa dantza taldea, Olaederra kiroldegian, 22:30ean. Sarrera bost euro

ANOETA

■ **Martxoak 2, larunbata.** Emanaldia herriko plazan, Loatzo musika eskolaren, Anitz dantza taldearen eta bertolarien eskutik, 12:30ean.

14:30ean bazkaria frontoian. Izen emateko epea bihar arte, ikastolan eta Itzuli tabernan. Haurrek 6 euro, ikasle eta langabeek 10, eta langileek 12.

ALEGIA

■ **Martxoak 1, ostirala.** Mus txapelketa Hilario Berri tabernan, 22:30ean. Inskripzioa, sei euro.

■ **Martxoak 3, igandea.** Sagardo eta pintxo dastaketa herriko plazan, 12:00etan.

ADUNA

■ **Martxoak 11, astelehena.** Emanaldia herriko plazan, Loatzo musika eskolak antolatuta, 18:30ean. Ondoren, parte hartzaileen argazkia eta merienda.

Gutuna

KMK'13: eskerrik minenak, AHORA!

Joan ziren Inauteriak, baina gure artean dirau oraindik, aurreprestakuntzan eta jai-egun horietan bertan, elkarrekin bizi izan ditugun uneek eragindako bizi-pozak. Izan ere, Laskorain ikastolaren proiektuan murgilduta gaudenok, egun horiek, aurtien era desberdinez bizi izan ditugu. Inauteri-egun huts bezala ez baina, AHORA! leloak laburtzen duen KMK '13 ekitaldia-aren aldeko aukera bezala. Hala, festa-giroak sortu ohi duen zapalartaren erdian, hor izan dira abian jarritako bi ekimenak: tonbola eta jatetxea. Biak ala biak, ezin esan gabe utzi, laguntzaile eta boluntario askoren ekimen, borondate eta lanari esker atera ditugu aurrera. Bihotz hartz hauek gure eskerrik minenaren adierazletzat, nola edo hala, bi jarduerari horietan parteidate izan zaren guztiontzat.

Jakin badakigu horietariko zenbait bidean ahaztuta gertatu zaizkigula, barkatuko ahal diguzue! Alabaina, hona hemen ondo irabazitako eskertzea berezia ikastolaren proiektuan buru-belarri inplikatu zaretenoi: Tolosako eta Irurako Udalei, lokala eta plataforma uzteagatik, hurrenez hurren; Garikano Toldoak enpresari, euria goien behan ari zuen horretan, estalki sendoa uzteagatik; Arramele aroztegia eta Tarte enpresetako langileei, euren ezagutza profesionala tarteko izan ezean, ezinezkoa izango zitzaizgulako jate-txea abian jartzea; Ikastolako gurasa, Artezkaritza Kontseiluko parteide eta ikasle eta irakasle ohiei, egungoei, eta parte hartu duzuen guztiei, ilusioa, umorea eta lana, aitzakiarik gabe, eskaintzeko gai izateagatik.

Horiek guztiak alferrik ariko ziratekeen, ordea, Tolosako herriak berak ikastolaren proiektuan inplikatzeko borondaterik izan ez balu: gure eskerrik minenak tonbolara eta tabernara hurbildu zaren guztioi, zuen partaidea zirik gabe, alferrikako bi ekimen izango ziratekeelako. Bihotzetik AHORA!, mila esker guztioi.

Hala ere, hasi baino ez gara egin. Kilometroak 13 eguna urrutitxo geratzen zaigu oraindik, baina, AHORA! helburua beteko bada, ezin da egun bakarrek ospakizuna izan. Horrela, urte osoan zehar Tolosa eta inguruan nabarmenduko den haize-bolara izan dadin, laster izango ditugu hitzordu berriak: jasoko duzue garaiz horien berri. Jakina, horietan guztietan laguntzaileak beharko ditugu. Baldin eta oraindik izenik eman gabe bazaudete, eta urtean zehar edota Kilometroak egunean berean esku bat bota nahi badiguzue, zoazte www.kilometroak.net gunera; bertan duzue izena emateko aukera. Guztion laguntza beharrezkoa izango dugu.

Gure berri izateko edota antolatzen ditugun ekitaldien jakinaren gainen izateko, berri, hor dituzue abian jarri ditugun sare sozialak: *Facebook kmk13tolosa*, *Twitter @kmk13tolosa*, *Flickr /kilometroak2013*, eta *Youtube kilometroak2013*.

Gainera, kultur ekitaldiekin batera, urte guztian zabalik izango da Kilometroak denda, Korreo kalea, 7an. Bertan aurkituko dituzue salgai AHORA kanta, arropa eta gainontzeko produktu berriak. Azkenik, udaberriaren atarian gauden hone-tan, Lilatoirako kirol nikiak merkealdian daude eta baita neguko arropa berezia ere.

■ **Unai Igartua.** Koordinatzailea

→ Laburrak

Generoari buruzko tailerra Donjuanena etxean

ALKIZA ▶ Amañili, Alkizako emakumeen elkarteak, tailer azkar bat antolatu du bihar, ostirala, arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara bitarte. *Gaur, izan nahi dudana emakumea izango naizenez burupean*, Equala taldeko Vanina Vazquez Gentile psikologo adituak, gaiarekin loturiko hitzaldi bat emango du. Bertan, mugak, arau-hausteak, eguneroko gatazkak eta zain-tzak izango ditu ardatz hizlariak. Donejakue etxean burutuko den tailerra, Emakunderen diru laguntzari esker antolatu dute.

Ibarrako Udalak 2013ko egutegia banatuko du

IBARRA ▶ Udalak 2013 honetarako egutegia argitaratu berri du, *Ibarran Euskaraz bizi nahi dut, eta zuk lagun?* lelopean. Egutegi argazkia aukeratze-ko, Ibarrako Udalak lehiaketa bat antolatu zuen, baina lan bakarra aurkeztu zenez, bertan behera utzi behar izan zuten. Hala ere, euskararen nazioarteko eguna baliatuz, marrazki lehiaketa bat jarri zuten abian, Uzturpe ikastolarekin batera. Lehiaketa horretan jasotako lan guztien artean, epaimahaiak Aratz Sarasolaren lana aukeratu zuen bere kolore biziengatik eta transmititzen duen alaitasunagatik. Bi neurritako egutegiak banatuko dituzte, formatu haundikoa bata, eta formatu txikiak bestea.

Inposaketaren aurkako kotxe karabana Zizurkilten

ZIZURKIL ▶ *Nazioa gara. Geurea ikurrina, inposaketarik ez!* lelopean, kotxe karabana antolatu dute Zizurkilten, gaur, osteguna, arratsaldeko 19.00etan hasita. Olentzon dagoen Leibiko apartamentu abiatuko da martxa, eta Bai Euskal Herriari taldeak, dei egiten die herritarrei martxan parte hartu dezaten. Hala ere, gaurkoa ez da gisa honetarako ekimen bakarra izango. Tolosan, eskualde mailako manifestazioa deitu dute datorren martxoaren bederatzirako, larunbata. Triangulua plazatik abiatuko dira eguerdiko 12.00etan. Aralar, EA, ezker abertzalea, EHNE, ELA, LAB eta beste hainbat herri eragile dira manifestazio honetarako deia luzatu dutenak.

Eskualdeko muslariak indartsu, Euskal Herriko Mus Txapelketan

Pasa den asteburuan Seguran jokatuako kanporaketan, aurrera egin dute eskualdeko zortzi bikoteak

J. Telleria

Joan den asteburuan jokatu ziren Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketak, herrialdeko banatuta. Gipuzkoako, Seguran jokatu ziren, eta bertan, eskualdeko ordezkariak zabal

izan zen parte hartzen. Tolosaldeko zortzi bikoteak, final nagusira txartela lortu zuten, eta era horretan, Larraul, Ikaztegieta, Anoeta, Elduain, Villabona eta Zizurkilgo bikoteak Euskal Herriko txapela janzteko aukera izango dute, Agurainen.

Larraulgo bikotea, txapeladun

Jose Antonio Arizeta eta Juan Kortajarena larrauldarrek osatutako bikoteak, Gipuzkoako kanporaketako lehenengo postua eskuratu zuten.

• tolosaldean@hitza.info

Lluis Verdaguer ◉ La Plana mankomunitateko presidentea

CIU alderdiko kideak hitzaldia eskainiko du bihar Tolosako Topic zentroan, 19:00etan, hondakinen kudeaketaren inguruan. Lluis Verdaguer Kataluniako Taradell herriko alkatea eta La Plana mankomunitateko presidentea da.

«Bizilagun guztien inplikazioa beharrezkoa da atez atekoan»

Asier imaz

Taradell herria Bartzelonako lurraldean aurkitzen da, eta 6.212 biztanle ditu. La Plana mankomunitatea 12 herrik osatzen dute, hau da, 32.000 biztanle. Hondakin bilketaren datuak eskuetan dituela, harrotasunez hitz egiten du Lluis Verdaguer-ek (Taradell, Herrialde Katalanak, 1971). Tolosaldeko mankomunitateak gonbidatuta, bihar, Tolosan izango da hitzaldia ematen.

Nola kokatuko duzu hitzaldia?

Atez atekoaren aldeko apustua egiten lehenengoetako herria Tona izan zen Katalunian, duela 13 urte inguru. 8.200 biztanle inguru ditu Tonak, eta La Plana mankomunitatean dago. Ondoren, pixkana-pixkana, mankomunitateko gainontzeko hamaika herriak apustu bera egiten hasi ginen.

Zergatik?

Garai hartan arazo larri bat genuen: errauskailua. Herriarren artean zatiketa handia sortu zuen, eta hori konpontze aldera, atez atekoaren aldeko apustua egitea erabaki zen.

Egun martxan al dago errauskailua?

Ez. Atez atekoa errauskailura zihozten hondakinak ahalik eta gehien birziklatzeko helburuarekin jarri genuen martxan. Horrek ez du esan nahi momentu hartan errauskailua kentzeko helburua genuenik, baina izugarriko emaitzak lortzen hasi ginen atez atekoarekin. %25 birziklatzetik %75 birziklatzera pasatu ginen.

Erabat irauli zenituzten datuak.

Erabat. Horrekin batera, agerian gauza bat gelditu zen argi eta garbi, ingurumenari begira sistemarik onena atez atekoa dela. Horretarako, ordea, bizilagun guztien inplikazioa beharrezkoa da, sistemaren arrakasta hortik baitator. 2011n, ehunekoetan hondakin gehien birziklatu zuen Kataluniako herria Taradell izan zen, %84 lortuz, eta hori harrotasun handiz esaten dugu joaten garen lekura joanda.

Zergatik aukeratu zenuten atez atekoa, eta ez bosgarren edukiontzia?

Edukiontzia drama, berdin dio hiru, lau edo bost jarri, ondorengo da: hamar bizilagunek ongi birziklatzen baldin badute, baina hamaikagarrenak gaizki, guztien lana izorratzen da. Atez atekoaren kasuan hori ez da gertatzen: batek gaizki egiten badu ez zaio jasotzen, ondorioz, ez du gainontzekoen lana zikintzen. Edukiontziekin oso zaila da kontrol hori eramatea, eta nahikoa da hamarretik batek, edo ehunetik batek gaizki egitea guztien lana zapuzteko. Kasu horretan, gaizki egin delako, bilketan nahastu eta zikindu den guztiak errauskailura joan beharko luke.

Herritarrek nola hartu zuten hondakin bilketa sistema berria?

Euskal Herriarekin alderatuz, abantaila bat izan genuen guk, gaiaren inguruan adostasun politikoa zegoela.

Zein alderdiren artean?

CIU eta Ezkerra Republicanaren artean.

Herritarrek bat egin al zuten adostasun horrekin?

HITZA

Euskal Herrian egiten ari diren bezala hasi ginen gu ere, bizilagunekin batzarrak egiten eta zalantzak argitzen. Lehenik eta behin, auzo batean jarri genuen martxan, eta gero, zabaltzen joan ginen. Une oro birziklatze datuak zeintzuk ziren esaten joan ginen, eta herritarrak egokitzen joan ziren poliki-poliki. Batzuei kostatzen zitzaizkien sartzeari, ezkorragoak zirelako, baina hala eta guztiz ere jarri egin zen, pedagogiarenean bidetik, eta ongi egiten zutenak sarituz.

Oposizio handirik ez zen egon, beraz.

Oso erraza izan zela esango banu, gezurretan ariko nintzateke. Aurkako jarrera zuten herritarrak egon bazeuden, eta euren iritzia modu ikusgarri batean azaltzen zuten batzutan. Bestalde, aldekoak ere bazeuden, nahiz eta hain ikusgarri ez adierazi euren iritzia. Zaila da hori ongi ebaluatzea. Herritar asko mesfidati zegoen, eta

hondakin poltsak alboko herrian edo errepideetan botatzen zituzten. Hori konpontzeko udalak lan gehigarri bat egin behar izan zuen, baina behin egoerari buelta eman eta gero, emaitza arrakatsuak ikustean eta zenbat birziklatzen ari zaren ikustean, jendea bere buruaz harro sentitzen zen. Atez atekoak bosgarren edukiontzia duen abantaila hori da, emaitzen arrakasta.

Atez ateko hondakin bilketa sistema martxan jarri zenuenetik hamar urte inguru pasa dira. Zein da herritarren iritzia orain?

Ez daukat herritarren iritzia adierazten duen inkestarik esku artean, baina gauza bat oso argi da: lehengora itzuli beharko bagenu, alkate izateari utziko nioke.

Hondakinen kudeaketa nola dago Katalunian?

Gure herrian jendeak oso bereganatua dauka atez ateko sistema, eta beste herri batetara joaten za-

renean, birziklapena gure moduan egiten ez dutela ikustean, iraingarria egiten zaizu. Katalunian asko dago egiteko oraindik. Datuak eskuan, birziklapena tasa bataz beste %40 izango da, eta gu %80an gabilta. Gehien birziklatzen duten hamar herritik sei gure mankomunitatean daude; oso argi dago hobekien funtzionatzen duena atez atekoa dela.

Herri handien kasuan ez da hain erraza izango?

Egia da herri txikiak garela, eta 40.000 mila biztanle dituen hiri batean zer gertatuko litzatekeen ez dakigula, baina Vic-en atez atekoa jartzekotan dira, eta 40.000 biztanle ditu. Zalaparta sortuko da, hori ziur, baina behin hasi eta emaitzak ikusten dituztenean, egoerari buelta emango zaio; herritarrek ongi ari direla ikusten dutenean, ez dago atzera bueltarik. Itxura aldetik zerbaite esan dezakete agian, 22:00etatik aurrera pare bat orduz poltsak kaleak egongo direlako, baina ez da ahaztu behar egun guztian zehar ez dela zakar poltsarik botata ikusten, edukiontzirik ez baitago.

Gipuzkoan gertatzen ari dena jarraitzen ari al zara?

Azaroan egon nintzen Euskal Herrian eta sentsazio txarrarekin itzuli nintzen, liskar politikoa baitago. Inorekin ondo edo gaizki gertatzeko asmorik gabe, penagarria da gai hau desgaste politikorako erabiltzea; hau defendatzen duena edozein izanda ere, gobernuan egon edo oposizioan egon.

Lehentasunak nahastu direla esan nahi al duzu?

Agian oker nago, ez dakit, baina uste dut Katalunian ingurumenari buruzko pentsaera barnerratuago daukagula. Hemen benetan garrantzia duena ahalik eta emaitza onenak lortzea da, eta horretan berdin dio alderdi honek edo hark esaten duena. Herritarrek gaiaren garrantziaren inguruan kontzientzia hartu behar dute, eta politikoen arteko talkak ez dira herritarrentzat onuragarri. Egokiena adostasun bat egotea izango litzateke; agian tarteko bide bat bilatu behar da, atez atekoak derrigorrez ez du izan behar modu batera, aldagai asko ditu sistema honek.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



10°
5°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	10°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Martxoaren 2an, korrika kulturala ospatuko dute Anoetan. Egun osoko festa izango da, eta bazkarira joateko izena eman behar da Ikastolako idazkaritzan edo Itzuli tabernan hilaren 29a baino lehen. Haurrek, 6 euro, ikasle eta langabe-tuek, 10 euro eta langileek, 12 euro ordaindu beharko dute.
- **Tolosa.** Bihar, Hirukidek urteroko bertso-afaria ospatuko du, Peñagarikano, Gorostidi eta Muñoa bertsoariekin. San Esteban elkartearen 21:00etan izango da. Sarrerak Hirukideko idazkaritzan eta elkartearen bertan salgai daude.
- **Tolosa.** Apirilaren 14aren aurreko astean, Tolosako Foru Errepublikanoak Kultur Aste Errepublikanoa antolatuko du. Errepublikara garaiko argazki eta gauzen erakusketa egin nahi dute, eta materiala bildu nahi dute. Horretarako, kultur etxera joan beharko da bihar bitartean, 19:30etik 21:00ra.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Olatreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 670128. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolararen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 6710 40.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Ihurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Beñat Argote Altuna (Tolosa).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuak Berriobiko aitonen partetik.

Publierreportajea

Tolosako Irudi ile apaindegiak 25 urte bete zituen atzo, eta Arantxa eta Idoia Urkola tolosar ile apaintzaileek hasierako urteetatik kalitatea eta gertutasuna eskaintzen jarraitzen dute

Gertutasunaren irudia

Eneritz Maiz Tolosa

Urkola ahizpek hogeita bost urte bete dituzte tolosarrei eta eskualdeko herritarrei ile apaindegi zerbitzua eskaintzen. Arantxa eta Idoia Urkola tolosarrrak dira, eta urte guzti hauetan biak izan dira negozioa aurrera atera dutenak. Txikitatik garbi zuten ile apaindegi batean lan egin nahi zutela. «Gure etxean papina guztiek ilea moztuta bukatzen zuten», adierazi du Arantxak.

Hasierako urteetara salto egin da, lehenengo Arantxak egin zituen ikasketak, eta izeba batekin hasi zen lanean. Gero, Idoia ahizpa etorri zen, eta bien artean ile apaindegi jartzea erabaki zuten. Orduan ere krisi garaiak zirela gogoratzen dute, eta langabezia asko zegoela. Beraiez gain beste hainbat ere ireki ziren Tolosan, eta martxan zegoen ile apaindegi batean sartu ziren Laskorain kalean, alokairuan. Ite apaindegiaz hitzetan hastearekin batera, gurasoengandik jaso duten laguntza nabarmendu dute Urkolatarrak: «Beti hor izan ditugu ondoan, eta beraien laguntza gabe ezin izango genuen aurrera egin. Beti izan dugu beraien babesa».

Jarraian, hemeretzi bat urte Korreo kalean egin zituzten beraien ile apaindegi propioa zabalduz. Orain, ordea, ekainean lau urte beteko dituzte, Eskolapioetako lorategiak kalean duten ile apaindegi berrian.

Bezerorik gabe, ile apaindegia hogeita bost urtez aurrera ateratzea ezinezkoa izango zenez, ezin izan dute bezero fideleak eskerrak eman gabe geratu: «hogeita bost urte hauetan bezero asko berdinak ditugu, beste asko bidean daude», gaineratu dute.

Beraien lana goraipeztatzen bezeroekiko «gertutasuna» aipatzen dute. Familia moduko bat osatzen dute bezeroekin, eta familia askotako belaunaldi ezberdinak ezagutu dituzte. «Etxeke egiten ditugu», dio Arantxak. Familia askotako jaunartzeak, baitaioak edota ezkontzak ezagutu



Urkola ahizpek Irudi ile apaindegia Eskolapioetako lorategiak kalean dute. E.MAIZ

dituzte. Era berean, bezeroak entzuten jakitea ere garrantzitsua dela diote, eta beraien konektatzea nabarmendu dute Urkolatarrak: «Komunikazio ona izatea dute ardatz, eta hori naturaltasunean oinarritua dute».

Gainera, psikologo lana ere beraien negozioaren parte dute. Ite apaindegiek duten fama ez dela horrela argitu dute, eta prentsa arrosaz hizketaldi gutxi izaten dituztela. «Jendeak gehiago hitz egiten du bere buruaz besteez baino», gaineratu du Idoiak. Eta «ile apaindegia beteta dagoenean askoz ere kontu gutxiago esaten da», gaineratu du Arantxak.

Ilearekin nahi dutena egiten dutenaren ospea ere bertan behar utzi nahi izan dute, eta bezeroekiko errespetua beharrezkoa ikusten dute. Bezeroak zer nahi dute, hori egin behar duela ile apaintzaileek garbi dute.

Urteetako esperientzia

Astehenetik larumbatera egiten dute lan, eta «etxeke negozioa» izatearen abantailak azaldu dituzte: «ordutegiak moldatzeko erraztasuna izan dugu, eta hoiarrak malgutasuna eman digu».

Baita ordu gehiago sartu behar badira ere. Proiektu batean gaudela sartuta eta inplikazio gehiago dago. Eta etxeke negozioa izatearen beste abantaila aipatzean, «kalitatea eta prezioa» lotu dituzte: «Langileak badituzu kostua igo egiten da, eta horrek prezioaren eragina du». Beraien neurriaren egokিতatuko negozioa egin dutela diote.

Orain, enpresa guztiak bezala, kostuak nondik gutxitu begiratu dute. Hala ere, ez dute bezeroen aldetik jaitziera nabarmenik atzeman.

Bi ahizpek garbi dute hogeita bost urteek eman diena «esperientzia» dela. Era berean, beti ordu behar dute argi eta ikasteko gogoarekin. Hala ere, urteek eman dieten aberastasuna baliatzen dute. Hasierako urteetan guztia berritasuna zela gogoratzen dute, baina hala ere beti presatzen jarraitzen dute. Azkenean funtzionatzen duena betikoa dela ekarri dute gogora.

Aldaketarik nabarmenena kalitatearen aldetik etorri dela diote, bai produktuaren aldetik eta bai beraien ikasketen aldetik ere.

«Orain askoz ere gehiago zaintzen da ilea», argitu dute. Besteetik, modetara egokitzea dela kontua argitu dute.

Bezeroen leialtasuna

Hogeita bost urtean, eta ile apaindegi batean bitxikeria ugari izango dituztela galdetzean, mutil kuadrila bat aipatu dute. «Gazte zirela hasi ziren guregana etortzen, baina orain burusoil geratu dira eta jada ez dira etortzen. Hala ere, urtero inauterietan antolatzen duten hamaiketakora gonbidatzen gaituzte». Beraien bikoteak eta seme-alabak ere ezagutu dituzte.

Beste hainbat bezeroen leialtasuna ere nabarmendu nahi izan dute. «Batzuk Legazpira, Usurbilera,... joan dira bizitzera baina ahala eta guztiz ere guregana etortzen jarraitzen dute», kontatu du Idoiak. «Eta guk hori estimatu egiten dugu», gaineratu du. Gainera, zorteko direla eta oso bezero jatorrak dituztela azpimarratu dute bi ahizpek. Hemendik aurrera, edonork joan nahi izanez gero, Irudi ile apaindegi atean zabalik izango dira.